

1199/2018 EBAZPENA, 2018ko maiatzaren 30ekoa, Ezkerraldea-Enkarterri-Cruces ESiko Zuzendari Gerentearena, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Ezkerraldea-Enkarterri-Cruces ESIan Erizaintzako Zuzendaritzan Zuzendaritzako Idazkari lanpostu bat izendapen askez betetzeko.

Ezkerraldea-Enkarterri-Cruces ESiko Erizaintzako Zuzendaritzan Zuzendaritzako Idazkari lanpostua bete beharra dago lanpostu hori izendapen askez betetzeko deialdi publikoa iragartzea erabaki du Zuzendaritza Gerentzia honek, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Légearen 28. artikuluko hirugarren arau komunean, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezartzen denaren arabera, honako oinarrien arabera:

OINARRIAK:**1.- Parte hartzeko baldintzak.**

Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute honako baldintza hauek betetzen dituztela egiaztatzen dutenek:

- a) Osakidetzako edozein zerbitzu-erakundetan, estatutupekoa, funtzionarioa edo lan-kontratudun finkoa izatea eta plaza jabetzan edukitzea C2/D2 talde profesionallean.
- b) C2/D2 taldeari dagokion titulazioaren jabe izatea.
- c) Gutxieneko lan-esperientzia: 2 urte C2/D2 talde profesionallean.
- d) 2. Hizkuntza Eskakizuna, derrigortasun-data: 2016/12/03.
- e) Uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan eta Osakidetzako Euskara Planean ezarritako gainerako betebeharrak.

2.- Kontuan hartuko diren merituak:

- Esperientzia edota prestakuntza zuzendaritzako antolamendu-unitateetan.
- Ezagutza aurreratuak Ofimatikan: Word, Excel, Access, Power Point.
- SAP-karteldegietan ezagutzak.
- Giza Baliabideen Kudeaketa-programaren ezagutzak.
- Erizaintzako Zuzendaritzaren antolamendu-egituraren ezagutzak.
- Komunikaziorako eta jendearen arretarako trebetasunak.

RESOLUCIÓN 1199/2018, de 30 de mayo de 2018 del Director Gerente de la OSI Ezkerraldea-Enkarterri-Cruces, por la que se convoca la provisión, mediante libre designación, de un puesto de Secretaria/o de Dirección en la Dirección de Enfermería en la OSI Ezkerraldea-Enkarterri-Cruces de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

Siendo necesaria la provisión de un puesto de Secretaria/o de Dirección en la Dirección de Enfermería de la OSI Ezkerraldea-Enkarterri-Cruces de conformidad con lo dispuesto en el artículo 28 Norma Común Tercera de la Ley 8/1997 de 26 de junio, de Ordenación Sanitaria de Euskadi, en el Decreto 186/2005, de 19 de julio, por el que se regulan los puestos funcionales de Osakidetza y en el Decreto 255/1997 de 11 de noviembre, esta Dirección Gerencia acuerda anunciar convocatoria pública para su provisión, por el procedimiento de libre designación, con arreglo a las siguientes:

BASES:**1.- Requisitos de participación.**

Podrán participar en esta convocatoria quienes acrediten el cumplimiento de los siguientes requisitos:

- a).- Ser estatutario, funcionario o laboral fijo en cualquier organización de servicios de Osakidetza, y tener plaza en propiedad en el grupo profesional C2/D2.
- b).- Hallarse en posesión de la titulación del grupo C2/D2.
- c).- Experiencia profesional mínima de 2 años en el grupo profesional C2/D2.
- d).- Perfil lingüístico 2, con fecha de preceptividad, 03/12/2016.
- e).- Resto de requisitos del Decreto 186/2005, de 19 de julio, y del Plan de Euskera de Osakidetza.

2.- Méritos a considerar:

- Experiencia y/o formación en unidades organizativas directivas.
- Conocimientos avanzados de Ofimática: Word, Excel, Access, Power Point.
- Conocimientos de SAP-Carteleras.
- Conocimientos del programa de Gestión de Recursos Humanos.
- Conocimientos de la estructura organizativa de la Dirección de Enfermería.
- Habilidades de comunicación y atención al público.

Lanpostu horretan aritzeko balioa eransten duten eta interesgarriztat jotzen diren merezimendu guztiak aurkez daitezke.

3.- Euskararen ezagutza.

Euskararen erabilera Osakidetzan normalizatzeko den martxoaren 18ko 67/2003 Dekretuak, eta beraz garatzen duten arauak, xedatutakoaren arabera baloratuko da.

4.- Eskabideak aurkezteko epea eta modua:

Interesdunek Osakidetza-Euskal Osasun zerbitzuko Ezkerraldea-Enkarterri-Cruces Pertsonal Zuzendaritzara (Gurutzetako Plaza z. g. 48903 Barakaldo) aurkeztu beharko dituzte eskabideak, 15 egun balioduneko epean, ebazpen honen iragarkia EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Halaber, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. Artikuluan ezarritako eran ere aurkeztu ahal izango dira. (Herrí Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea).

Interesdunek eskabidea datu pertsonal guztietan bete eta dokumentatutako curriculum vitaerekin batera Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Pertsonaleko Zuzendaritzara bidali beharko dute. Dokumentazioa honelakoa izan behar da:

- NANaren, pasaportearen edo gidabaimenaren fotokopia konpultsatua.
- Funtzionario edo estutupeko langile izendapenaren fotokopia konpultsatua edo, hala badagokio, lan-kontratu finkodun langilea dela egiaztatzen duen agiriarena.
- Baldintzak betetzea egiaztatzen duen dokumentazioaren fotokopia konpultsatua.
- Kontuan hartzeko meritu guztien fotokopia konpultsatua.

Ez da beharrezkoa izango aurreko paragrafoan adierazi bezala egiaztatzea, baldin eta CV aplikazio informatiko korporatiboan jadanik egiaztatuta badaude, eta, beti ere, izangaia bere eskabidean horrela adierazten badu.

5.- Balorazio Batzordea.

Balorazio batzorde bat osatuko da, batzordeburu zuzendari gerentea edo hark eskuordetzen duena izanik, eta hauexek izango dira bertako partaideak: Erizaintzako Zuzendaria, Pertsonaleko zuzendariordea (idazkari izango dena, ahots eta botoarekin) eta administrazio arloen arduradun bat.

Se podrán aportar cuantos méritos se consideren de interés y añadan valor al desempeño de este puesto de trabajo.

3.- Conocimientos de euskera.

Se valorará conforme a lo previsto en el Decreto 67/2003, de 18 de marzo, de normalización del uso del euskera en Osakidetza-Servicio vasco de salud, y en sus normas de desarrollo.

4.- Plazo y presentación de solicitudes.

Los interesados dirigirán sus solicitudes a la Dirección de Personal de la OSI Ezkerraldea-Enkarterri-Cruces, (Plaza de Cruces, s/n, 48903 Barakaldo), de Osakidetza-Servicio vasco de salud, dentro del plazo de 15 días hábiles contados a partir del siguiente al de la publicación del Anuncio de la presente Resolución en el B.O.P.V.. También podrán presentarse en la forma establecida en el artículo 16 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Pública.

Los/as interesados/as deberán dirigir la solicitud con todos sus datos personales, acompañada de "Curriculum Vitae" documentado a la Dirección de Personal del Hospital Universitario Cruces. La documentación deberá tener la siguiente forma:

- Fotocopia compulsada del DNI, pasaporte o permiso de conducir.
- Fotocopia compulsada del nombramiento de personal funcionario o estatutario o, en su caso, del documento que acredite la condición de laboral fijo.
- Fotocopia compulsada de la documentación que acredite el cumplimiento de requisitos.
- Fotocopia compulsada de todos los méritos a considerar.

No será preciso acreditar en la forma indicada en el párrafo anterior aquéllos extremos que consten debidamente validados en la aplicación informática corporativa de CV, si bien esta circunstancia deberá hacerse constar en la solicitud que realice el aspirante.

5.- Comisión de Valoración.

Se constituirá una Comisión de valoración presidida por el Director Gerente o persona en quien delegue, e integrado por la Directora de Enfermería, la Subdirectora de Personal (que actuará como Secretaria con voz y voto) y un responsable de las áreas administrativas.

Izangaien balorazioa egindakoan, eta berau kontuan hartuta, proposamena osatuko da dagokion izendapena egiteko. Batzordeak lanpostua hutsik uztea erabaki dezake, aurretik arrazoitutako fhostena osatuta, baldin eta hautagaiek eskatutako baldintzak betetzen ez badituzte.

Akta egingo da Batzordea biltzen den bakoitzean. Bertan, aurkeztutako izangaiak zerrendatuko dira, eta lanpostua beraietako bati esleitzeko edo deialdia bete gabé uzteko kontuan hartutako arrazoiak emango dira.

6.- Hautatzeko prozedura.

Inolaz ere ezingo dira baloratu deialdiaren iragarkia EHAAn argitaratzen den egunean eduki ez diren merituak, ezta eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen behar bezala aurkeztu eta egiaztatu ez direnak ere.

7.- Prozedurari amaiera ematen dion Ebazpena.

Hemen hasitako prozeduraren amaiera (lanpostua esleitzea edo hutsik uztea), Osakidetza Ezkerraldea-Enkarterri-Cruces ESIko zuzendari gerentearen Ebazpenaren bitartez egingo da, eta Osakidetza intraneten eta web-orrian argitaratuko da. Era berean, iragarki bat argitaratuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

Ebazpen horrek ondorioak izango ditu iragarkia EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, bertan besterik xedatu ezean behintzat.

8.- Ebazpen honen aurkako errekurtsioak.

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen honi dagokion iragarkia EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Efectuada la valoración de los aspirantes y a la vista de la misma, se elevará propuesta a fin de formalizar el oportuno nombramiento. La Comisión podrá, previo informe motivado, declarar desierta la plaza en caso de que los aspirantes no reúnan las condiciones exigidas.

Se Jevantará acta de cada sesión de la Comisión. En la misma constarán los aspirantes presentados así como los motivos tenidos en cuenta para la asignación del puesto a uno de ellos o, en su caso, para declarar desierta la convocatoria.

6.- Procedimiento de selección.

En ningún caso podrán considerarse méritos que no se ostenten a la fecha de publicación del Anuncio de la convocatoria en el BOPV, ni tampoco los que no hubieran sido debidamente alegados y acreditados antes de finalizar el plazo de presentación de solicitudes.

7.- Resolución que pone fin al procedimiento.

La finalización del procedimiento que aquí se inicia (asignación del puesto o declaración de desierta) se llevará a cabo mediante Resolución del Director Gerente de la OSI Ezkerraldea-Enkarterri-Cruces de Osakidetza-Servicio vasco de salud, que se publicará en la intranet y la página web corporativa de Osakidetza. Asimismo se publicará un Anuncio en el Boletín Oficial del País Vasco.


Dicha resolución surtirá efectos desde la fecha de publicación del Anuncio en el BOPV, salvo que en ella se disponga otra cosa.

8.- Recursos contra la presente resolución.

Contra la presente Resolución podrá interponerse Recurso de alzada, ante el Directora General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, en el plazo de un mes contado a partir del siguiente al de la publicación de su Anuncio en el Boletín Oficial del País Vasco.

Gurutzeta-Barakaldon, 2018ko maiatzaren 30ean

En Cruces-Barakaldo, a 30 de mayo de 2018



Osakidetza
EZEKERRALDEA-ENKARTERRI-CRUCES ESI
OSI EZEKERRALDEA-ENKARTERRI-CRUCES
GERENTZIA

Iz./Fdo: SANTIAGO RABANAL RETOLAZA

ZUZENDARI-GERENTEA / DIRECTOR-GERENTE